



OINARRIZKO EKINTZAK

Behin bezeroak AEB-ko atetik sartzen direnean, bezero berria den ala ez galdetuko diogu, berria ez bada, bere espedientea lokalizatuko dugu, bestela, espediente bat irekiko dugu.

Behin hori eginda, gure zerbitzua azalduko diogu. Urratsez urrats azalduko dugu nola funtzionatzen duen gure enpresak. Prest daudela jakiten dugunean, emea edo arra den eta zer arraza den aztertzen dugu. Hori jakinda, gauza bat edo beste bat egingo dugu:

Animalia emea bada:

- Zerbitzu garestiago bat eskainiko diogu inseminatu egin behar dugulako.
- Beste zerbitzu bereziago bat nahi badu galdetuko diogu, eta horren arabera, zerbitzu bat edo beste bat eskainiko diogu.
- Animalia ekartzeko ere eskatuko diegu. Probak egin behar izanez gero, arazorik gabe egingo genituzke.
- Bezeroak nahi duen espermarekin inseminatuko dugu.
- 2 ordaiketa egin beharko ditu bezeroak. Lehenik, gure zerbitzua kontratatuko duela ziurtazeko, eta azkenik, zerbitzua egin ondoren.

Animalia arra bada:

- Arraza eta animaliaren osasuna aztertuko dugu eta animaliaren esperma kalitatezkoa bada, bere spermaren prezioa adostuko dugu.
- Bezeroari ordaindu eta esperma gorde.

